



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2019ko azaroak 12

Vitoria-Gasteiz, 12 de noviembre de 2019

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**FUNTZIO PUBLIKOAREN EUSKAL KONTSEILUAK ONARTU EGIN DU
“KIDEGO ETA ESKALEN LEGE-AURREPROIEKTUA”, ETA GOBERNUARI
ESKATU DIO HURA IZAPIDETU BITARTEAN ENPLEGU PUBLIKOA
FINKATZEKO PROZESU BEREZIAK JASOTZEKO**

- Arau berri horrek Euskadiko administrazio orokorreko eta Gobernuko erakunde autonomoetako langile funtzionarioen lanpostuetara jotzeko eskatzen diren eginkizun eta titulazioak modernizatu eta eguneratuko ditu
- Kontseiluak eskatuta, Gobernuak, izapidetzen ari den bitartean, enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziak jasoko ditu, datorren urtetik aurrera euskal administrazio publikoek iragarri dituzten LEP ugariak deitzen direnean indarrean egon dadin
- Kontseiluaren oniritziaren bidez, lege berria onesteko eta urtea amaitu aurretik Legebiltzarrera bidaltzeko tramitazioaren amaierako fasean sartu da

Josu Erkoreka Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuak Gobernu Kontseiluari jakinarazi dio Funtzio Publikoaren Euskal Kontseiluak gaur “*Kidegoen eta Eskalen Lege Aurreproiektua*” onartuko duela. Horrela, Euskadiko administrazio orokorreko eta Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomoetako lanpostu bakoitzerako eskatzen diren eginkizun, titulazio eta ikasketa-eremuak aginduko dituen etorkizuneko legea onesteko eta urtea amaitu aurretik Eusko Legebiltzarrera bidaltzeko tramitazioaren amaierako fasean sartuko da.

Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua Euskadiko hiru erakunde-mailen eta euskal funtzio publikoko sindikatu nagusien arteko topaketarako foroa da: ELA, LAB, UGT eta CCOO. Haren deialdia derrigorrezkoa da, funtzionarioengan eragina duten arauak onesten direnean. Euskadiko administrazio orokorrean eta Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomoetan lan egiten duten 6.000 pertsona ingururengan eragina izango duen etorkizuneko “*Kidegoen eta Eskalen Legea*”ren kasua da.

“*Kidegoen eta Eskalen Lege Aurreproiektua*” arau oso laburra da: 2 kapitulu ditu, 19 artikulua, 2 xedapen gehigarri, xedapen iragankor 1 eta xedapen indargabetzaile 1. 2004ko egungo legea ordezkatzeko du, eta haren helburua da, zehazki, egungo talde eta azpitaldeak modernizatzea, lanpostuetako titulazio berri eta lanbide-profiletara egokitzeko.

ENPLEGU PUBLIKOA FINKATZEKO PROZESU BEREZIAK

Etorkizuneko “*Kidegoen eta Eskalen Legea*” izapidetzeko amaierako fase horretara iritsi da, funtzio publikoan gehiengoak diren 4 zentral sindikalekin 6

hilez sakon negoziatzen jardun ondoren. Negoziazio horren ondorioz, lege horretan sartuko dira aurtengo urtarriean Legebiltzarrari bidalitako *“Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua”*k enplegu publikoa finkatzeko aurreikusten dituen prozesu bereziak. Zehazki, **19. eta 20. xedapen iragankor** berak sartuko dira, prozesu berezi horiek 2020tik aurrera Euskadiko administrazio publiko guztietan hasiko diren LEPetan –milaka plaza deituko dira– martxan jarri ahal izateko.

Horrela, langile publikoen bitartekotasun-izaera % 40tik gorakoa denean, euskal administrazio publikoek *“sartzeko txanda berezia”* sortu ahalko dute, lanpostu horretan gutxienez bitarteko esperientzian 8 urte egiaztatzen duten pertsonentzat. Zehazki, xedapenek honako hau adierazten dute: *“behin eta salbuespen gisa deitu ahalko dute (...) beren kidego, eskala, espezialitate edo kategoriei dagozkien postu edo plazetan enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuak egiteko, egiturazko plazetan aldi baterako enplegua finkatzeko beharrezko neurri gisa”*. *“Proba bakarra izango da, praktikoa, deialdi bakoitzeko postuen prozedura, eginkizun eta ohiko zereginekin zerikusia duena”*. Proba baztertzaileria izango da, lehiaketa-oposizioaren prozesuetan.

Eusko Jaurlaritzaren xedea da, horren bidez, dagoeneko euskal administrazioetarako lan egiten duten milaka pertsonaren talentua aprobetxatzea eta, indarrean dagoen lege-esparruaren barruan, erakundeetan egonkortasuna bultzatzea. Helburua da Euskadiko administrazio publiko guztiak prestatzen ari diren hurrengo oposizioetan barneko laneko urteetan eta prestakuntzan eskuratutako ezagutza kapitalizatu ahal izatea eta, aldi berean, berdintasuna, merezimendua eta oposizioa egiten duten pertsonen gaitasuna bermatzea.

2 KIDEGO ETA 54 ESKALA

*“Kidegoen eta Eskalen Lege Aurreproiektua”*ren bidez, egungo talde eta azpitalde profesionalen kopurua sinplifikatu nahi da, eta malgutasuna eman nahi da, lanbide-titulazioetan dauden etengabeko aldaketen aurrean lanpostuen eskakizunak aldatu eta eguneratu ahal izateko. Horrela, lege hau onetsi ondoren, **2 lanbide-kidego baino ez dira egongo eta, bi horien barruan, 54 eskala sartuko dira:**

- **Kidego orokorrak:** administrazio-jarduerari lotutako eginkizunak betetzen dituzte, besteak beste: izapidetzea, kudeatzea, gauzatzea, aholkularitza ematea, ikuskatzea, programatzea, kontrolatzea, erregistroa, jendeari arreta ematea, laguntza ematea... Kidego horrek **4 eskala** profesional izango ditu: administrazioko goi-mailakoa, administrazio-kudeaketakoa, administraziokoa eta administrazio-laguntzailearena.
- **Kidego bereziak:** lanbide baten edo lanpostu jakin batzuen ezagutza berezia behar duten eginkizunak betetzen dituzte. Kidego horrek **50 eskala** profesional izango ditu: ontzigintza, farmazia, industrialia, meatzeak, nekazaritzako eta abeltzaintzako sektorea, haziak, arrantza, itzulpengintza, albaitaritza, juridikoa, kartografikoa, medikuntza, hirigintza...

Lege hori onesten denetik aurrera, Gobernuak, dekretu bidez, eskala bakoitzean bete beharko diren eginkizunak eguneratuko ditu, bai eta orain sortu edo aldatzen den bakoitzera jotzeko eduki beharreko ikasketa-eremuak edo titulazioak ere.

EGOKITZAPENA 6 HILETAN

Eusko Legebiltzarrak “*Kidegoen eta Eskalen Lege*” berria onestean, sei hileko epea egongo da, egungo talde eta azpitaldeak Euskadiko administrazio orokorreko eta erakunde autonomoetako kidego eta eskala berrietan sartzeko. Gainera, Eusko Jaurlaritzak aldizkako dekretuak egingo ditu lanpostuen zerrenden eta aldi baterako lan-poltsen edukia sortutako kidego eta eskala berrietara egokitzeko.

Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

LEZOKO TERMINAL INTERMODALA ETA LOGISTIKOA GARATZEKO PROTOKOLOA SINATZEA BAIMENDU DU GOBERNUAK

- Lankidetzarako protokolo bat da Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Sailaren eta Sustapen Ministerioaren artean
- Lezo-Gaintzurizketa terminal intermodala eta logistikoa Korridore Atlantikoan txertatuko da, Europar Batasuneko garraio-ardatz nagusietako batean
- Berari esker dinamizatu ahal izango da Pasaiaiko Portuaren erabilera, Euskal Y-arekin konektatuta UIC zabaleran, eta horrela estaliko dira trenbideko eta portuko mugaz haraindiko funtzio logistikoak eta eragiketak

Gaurko Gobernu Kontseiluak onetsi egin du lankidetzarako protokolo bat sinatzea Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Sailaren eta Sustapen Ministerioaren artean, Lezoko terminal intermodala eta logistikoa garatzeko helburuz. Bi erakundeen arteko lankidetzak beharrezkoa da Korridore Atlantikoan txertatuko den terminal intermodalaren eta logistikoaren proiektua burutzeko, Europar Batasuneko bidaiaren eta merkantzien garraio-ardatz nagusietako bat dela kontuan izanda.

Lankidetzarako protokoloaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak Sailak formulatu eta tramitatuko ditu, bere araudiaren arabera eta sustatzailea bera denez gero, Lezoko terminal intermodalaren eta logistikoaren Informazio Azterlana eta Eraikuntza Proiektuak, eta horretarako beharrezko azterlanak eta proiektuak aurrera eramango ditu, Sustapen Ministerioaren adostasunarekin.

Lezoko terminalari esker Pasaiaiko Portuaren erabilera dinamizatu ahal izango da. Hala, itsasoz iristen diren merkantziak trenera lekualdatu ahal izango dira, eta alderantziz, Euskal Y-arekin konektatuta, eta horrela estaliko dira mugaz haraindiko trenbideko eta portuko funtzio logistikoak eta operazioak, Gipuzkoako eta inguruetako industriaren euskarri izango direnak. Horrek ahalbidetu egingo du Pasaiaiko Badiako gainerako hiri-perimetroa progresiboki trafiko astunetik libre uztea. Horretarako, Lezoko terminalak hiru trenbide-zabalerak izango ditu: UIC edo estandarra, Iberikoa eta Metrikoa.

Lezoko terminalaren eraikuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen betearazpenaren esparruan sartzen da, beste helburu batzuen artean, trena indartzeko helburuz merkantziak garraiatzeko, eta terminal intermodalak eta logistikoak egokitzeko, merkantziak eraginkortasunez banatu ahal izateko.

Bere aldetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Plangintzak jasota du Lezoko terminal logistikoa lehentasunezko interesgunetzat Donostiako Area

Funtzionalaren Lurralde Plan Partzian (Donostialdea-Bidasoa Behea), 2016ko uztailaren 27ko 121/2016 Dekretu bidez behin betiko onetsian.

Eusko Jaurlaritzak kompetentzia eskusiboak ditu interes komunitarioko obra publikoen arloan, trenbideetan eta lurreko garraioetan, EAeko lurraldetik igarotzen direnetan, baita lurralde-antolamenduko eta hirigintzako kompetentziak ere.

Bere aldetik, Sustapen Ministerioak, bere Azpiegiturak, Garraioa eta Etxebizitza Planaren (PITVI) jardura-proposamenen artean, hau jasotzen du: Azpiegitura Nodalen Sare bat ezartzea, kate logistikoa trenbidea osorik integratzeko. Hala, azpiegitura horietako bat da Lezoko terminal intermodala eta logistikoa.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNUAK BAIMENA EMAN DU ENPLEGU-ZENTRO BEREZIAN DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN LAN-INTEGRAZIO- LAGUNTZAK AREAGOTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, baimena eman du enplegu-zentro berezian desgaitasuna duten pertsonen lan-integrazio- laguntzak areagotzeko; guztira, gehienez, **56.450.000 eurokoak** izan ahalko dira.

Egun arte, laguntza horiek 33.700.000 eurokoak ziren, eta desgaitasuna duten pertsonen okupatzen dituzten lanpostuetako soldata-kostuak ordaintzeko aurreikusitako dirulaguntzak finantzatzera bideratzen ziren; haiek zuzenean zeuden lotuta lanbidearteko gutxieneko soldatarekin eta pixka bat defasatuta zeuden.

2019an LGSrekin lotuta izan diren bi gorakadek dirulaguntza horien kostuetan izango dute eragin handia, eta, enplegu-zentro berezietan desgaitasuna duten pertsonen okupatzen dituzten lanpostuetako soldata-kosten inguruan eginiko eskabideei gutxienez azarora arte (barne) erantzuten jarraitzeko, programa horri baliabide ekonomiko berriak esleitzea zehaztu da eta, horrela, lanpostuak eta finantza-egonkortasuna bermatzea.

GOBERNUAK BAIMENA EMAN DU LANERATZEKO ENPRESAK SORTZEKO ETA HAIEN EUSTEKO LAGUNTZAK AREAGOTZEKO

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, baimena eman du laneratzeko enpresak sortzeko eta haien eusteko laguntzak areagotzeko. Aurrerantzean, 2022ra arte, urte anitzeko zenbatekoa, guztira, 10.897.500 eurokoa izango da; 677.500 euroko gorakada, orain arte emandako kopuruaren aldean.

Lanbideak, 2019. urterako, laneratzeko enpresak sortzeko eta haien eusteko laguntzen deialdia 10.220.000 euroekin onetsi zuen. Hasierako zuzkidura hori ez da nahikoa izan aurreikusitako dirulaguntzen finantzaketari erantzuteko; izan ere, areagotu egin da aurreko urtearen aldean finantzatzeko eskatu zen postu-kopurua.

2018ko ekitaldian, laneratzeko 226 postu eskatu ziren, alegia, diruz lagundu zitezkeen plantillan % 3,2ko gorakada egon zen, 2017aren aldean. 2019an, **laneratzeko enpresetan nabarmen hazi da sortutako enplegu-kopurua, 254 postu** eskatu dira, alegia, % **12,4ko** igoera egon da.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO LANBIDEK FAMILIA ETA LANA BATERATZEKO LAGUNTZAK AREAGOTZEKO ADOSTU DUEN AKORDIOARI

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Lanbidek familia eta lana bateratzeko laguntzak finantzatzera bideratutako baliabide ekonomikoak 214.000 euroan areagotzeko adostu duen akordioari; orain, guztira, 1.914.000 euro bideratuko dira.

Laguntzak, familia eta lana bateratzeko politikaren esparruan, kontrataziora bideratuta daude, semeak edo alabak zaintzeko edo mendekotasun-egoeran dauden edo muturreko osasun larriko egoeran dauden familiartekoak zaintzeko (baldin eta haiekin ahaidetasun-harremana badute) eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko.

Bi dirulaguntza ildo daude: batetik, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten eta inoren kontura dauden langileak edo sozietate kooperatibetako langile bazkideak edo lan-bazkideak ordezkatzeko langabe gisa inskribatuta dauden pertsonak kontratatzea, eta, bestetik, aurretik denbora partzalean kontratatutako langilearen lanaldia handitzeko dirulaguntza, eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen pertsona baten postua betetzeko.

Dirulaguntzaren zenbatekoa honako hauen baliokidea da: Gizarte Segurantzako kontingentzia arruntengatiko enpresa-kotizazioarena edo, sozietate kooperatibetako langile bazkideen edo lan-bazkideen kasuan, langile autonomoen araubide berezian kotizatzen badute, gutxieneko oinarriaren kotizazio-tasarena.

Hezkuntza

3,5 MILIOI EURO UDAL HAUR ESKOLEN MANTENURAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019-2020 ikasturtean 0 eta 3 urte arteko umeentzako haur eskolen titular diren toki korporazioei dirulaguntzak ematen dizkien Agindua onartu du. Hezkuntza Sailak 3,5 milioi euro bideratzen ditu deialdi honetara, eta dirulaguntzak aipaturiko haur eskola horiek mantentzeko kostuak finantzatzeko laguntza gisa emango dira, izan ere, haur eskola hauek eskaintzen duten zerbitzua funtsezkoa gertatzen baita euskal familia askorentzat, familia bizitza eta lan bizitza bateragarri egin ahal izateko.

Dirulaguntza hauen helburua da kostuak murriztea batetik, eta zero eta hiru urte arteko haurrentzako udal titulartasuneko haur-eskolen gaur egungo eskaintza sendotzea, bestetik. Era berean, ahaztu ezin den beste helburu bat da ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzea ere, hezkuntza-maila horiei dagozkien gaitasunak eta ezagutzak jasotzea ahalbidetuko dien hezkuntza. Udal bakoitzak jasoko duen ekarpen ekonomikoa, bere titulartasuneko haur-eskoletan okupatutako plazen arabera zehaztuko da.

Euskadin, euren titulartasuneko 17 haur-eskola dituzten 13 udalerrri daude egun. Haur-eskola horiek ez daudenez Haurreskolak Partzuergora bildurik, dirulaguntza hauen onuradun izan daitezke.

Hezkuntza Sailak eta Euskadiko udalek –laguntza hauek xede dituzten haur-eskolen titular badira, beti ere-, lankidetzak hitzarmenak garatuko dituzte deialdi hau egoki kudeatzeko.

Hezkuntza

UPV/EHUrekin, DEUSTUKO UNIBERTSITATEAREKIN ETA MONDRAGON UNIBERTSITATEAREKIN SINATUTAKO KONTRATU-PROGRAMEN 2019ko FINANTZIAZIOA 2,1 MILIOI EUROAN HANDITZEA

- **Finantzazio handitze hau dagoeneko Kontratu-Programak sinatzean 2019 urterako onartu ziren 49 milioi euroei gehitu behar zaie**
- **Kopuru berria *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da**

Gobernu Kontseiluak gaurko bileran adostu du, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, 2019 urtean “Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa” Kontratu-Programarako Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateei (UPV/EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) emandako finantzazioa 2.150.000 euroan handitzea.

2,1 milioiko kopuru hau, *Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa* eta *Gazte ekintzailtza* programak garatzera bideratuko da. Programa hauek “Unibertsitatea-Gizartea-Enpresa” Kontratu-Programan dagoeneko jasorik dauden ekintzen osagarri gertatzen dira. Diru-kopuru hau, honela gelditzen da banaturik, unibertsitate bakoitzeko:

	<i>Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa</i>	<i>Gazte ekintzailtza</i>	Guztira
UPV/EHU	1.020.000 €	270.000 €	1.290.000 €
Deustuko Univ.	424.000 €	114.000 €	538.000 €
Mondragon Unib.	256.000 €	66.000 €	322.000 €

Gaur onartu den 2.150.000 euroko handitzea, Kontratu-Programak sinatzean dagoeneko 2019 urterako onartu zen 49.134.873 euroko kopuruari gehitzen zaio.

“Hezkuntza-mundutik lan-mundurako trantsizioa” programaren helburua da unibertsitate-ikasketetako azken kurtsoan dauden ikasleek edo eta unibertsitate titulu ofizial baten jabe direnek trebetasun handiagoa lortzea; izan ere, profil konkretu bati buruzko gaitasunei lotutako ezagutzak, trebetasunak eta jarrerak lortuko dira, lan-esperientzia bat egiaztatzeko aukera honen bidez.

Programa honetan parte hartuko duten ikasleek hiru hilabeteko egonaldia egingo dute enpresa batean. Aurrez, unibertsitateak hitzarmena sinatua izan beharko du enpresa horrekin. Unibertsitatea ikasle horien jarraipena egiteaz arduratuko da. Programa hau gehienez 850 ikasleri zuzenduko zaie.

Bestalde, “**Gazte ekintzailera**” programari dagokionez, kultura ekintzailea unibertsitateko ikasleen artean aktibatzea du helburu. Horretarako, laguntza bat emango die eremu horretan sor daitezkeen enpresa-ekimenei eta enplegu berriak sor ditzaketen autonomo eta mikroenpresen ekimen horiei emango die laguntza. Programa hau gehienez 75 proiektuentzat izango da.

2019-2022 aldirako Kontratu-Programak

2019ko uztailean, eta 2019-2022 Unibertsitate Sistemaren Planaren baitan, Hezkuntza Sailak Kontratu-Programak sinatu zituen Euskal Unibertsitate Sistema osatzen duten hiru unibertsitateekin. Orotara 200 milioi euro baino gehiagoko finantzazioa (200.086.186 €) jasotzen da lau urterako (2019-2022).

Kontratu-Programak unibertsitateak finantzatzeko tresna bat dira. Unibertsitate bakoitzaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean adostutako irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa hobetzeko helburuak lortzeko baldintzatzen du finantzaketa hori. Unibertsitate-politikako tresnak dira, eta aparteko baliabide ekonomikoak helarazten dizkiete goi-mailako hezkuntza-zentroei. Hauek jasotzea, aldean artean adostutako helburu estrategikoak betetzearen baldintzapean dago.

Unibertsitateekin sinatutako “Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea” Kontratu-Programak, besteak beste, unibertsitateen eta enpresen eta beste erakunde batzuen arteko harremana sustatzeko jarduerak egitea aurreikusten du. Beraz, gorago azaldutako programa horiek dagoeneko Kontratu-Programetan aurreikusten zirenen osagarri dira.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 110.000 EURO ONARTU DITU ELKARGIRI ETA BASQUE CULINARY CENTERRI BIDERATUTAKO BI DIRU-LAGUNTZAREN BIDEZ KULTURA ETA SORMEN INDUSTRIAK BULTZATZEKO

- **Elkargik 60.000 euroko laguntzaren bidez KSI Berritzaile programan parte hartzen duten enpresen finantzaketa erraztuko du; Basque Culinary Centerrek, berriz, Erdialdeko Finlandia eskualdeari aholkularitza emango dio gastronomia bultzatzeko**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak Euskadiko Kultura eta Sormen Industriak sustatzeko bi diru-laguntza onartu ditu bere gaurko bileran. Laguntza horietako lehena, 60.000 eurokoa, Elkargi elkarteari zuzenduta dago, eta KSI Berritzaile programaren barruan enpresen finantzaketa administratzeaz arduratuko da. Bigarrenik, 50.000 euroko diru-laguntza bat onartu da Basque Culinary Centerrentzat, Erdialdeko Finlandia eskualdeari aholkularitza emateko, gastronomia ardatz duen garapen ekonomiko eta sozialeko proiektu baten barruan (gastronomia sektore estrategikoetako bat da euskal KSlen barruan).

KSI Berritzaile programa Euskadiko KSlen esparruko enpresei zuzenduta dago, kultura-sektoreetan (arte eszenikoak, ikusizko arteak, ikus-entzunezkoak, edizioa, musika edota kultura-ondarea) edo sormen-sektoreetan (arkitektura, diseinua, gastronomia, hizkuntza-industriak, artisautza, moda, publizitatea, bideo-jokoak...) aukera-espazioak sortzeko eta garatzeko helburuarekin. Proiektua honako ardatz hauen arabera garatzen da: berrikuntza teknologikoa, antolaketa-ereduaren berrikuntza eta enpresen finantza-gaikuntza. Proiektu horren barruan, Elkargi Elkarrekiko Berme Sozietatea, Gobernu Kontseiluak onartutako diru-laguntzari esker, enpresen finantza-gaikuntzaren ardatza garatzeaz arduratuko da.

Basque Culinary Centerri dagokionez, diru-laguntza Creadis 3 proiektuari lotuta dago. Proiektu horren helburua da Europar Batasunaren baitan barruti adimendunak sortzea, Kultura eta Sormen Industriak bultzatuz. Euskadi buru duen eta 2017-2021 aldian garatzen ari den ekimen honetan Europako bost eskualdek eta Estatu batek parte hartzen dute: Euskadi, Erdialdeko Finlandia, Valonia, Mendebaldeko Grezia, Emilia-Romania eta Eslovakia.

Proiektu honen barruan, Euskadi eta Erdialdeko Finlandia eskualdea elkarlanean ari dira gastronomia ardatz duen proiektu baten inguruan. Horrela, Euskadik aholkularitza emango dio Finlandiako eskualde horri, lurraldean gastronomia nola bultzatu jakiteko, garapen ekonomiko eta sozialaren ardatz bihurtzeko; izan ere, gastronomia indartu nahi dute Erdialdeko Finlandian eta sormen sektore hori estrategikoa da Euskadin.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 150.000 EURO ONARTU DITU HERRI URRATS ELKARTEARENTZAT, BERE URTEROKO JAIA FINANTZATZEN LAGUNTZEKO

- **Diru-laguntza honen bidez gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzea helburu duten egitasmoak bultzatuko dira**

Eusko Jaurlaritzak 150.000 euroko diru-laguntza bat onartu du bere gaurko Gobernu Kontseiluan Herri Urrats elkartearentzat, urteroko Iparraldeko ikastolen jaia eta honen inguruan antolatzen diren jarduerak finantzatzen laguntzeko. Honen bidez, gazteen aisialdian euskararen erabilera sustatzea helburu duten egitasmoak bultzatuko ditu proiektu honek.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza honen bitartez, Lapurdiko Senpere herrian ospatzen den Herri Urrats jaialdia bera lagunduko da, bai eta honen inguruan antolatzen diren kultura eta aisialdi jarduera guztiak ere. Izan ere, Iparraldean euskararen inguruan antolatzen den ekitaldirik nabarmenena da Herri Urrats eta Eusko Jaurlaritzak aitortzen du gure hizkuntza aisialdian eta gazteen artean bultzatzeko egiten den esfortzu hori. 2015ean 100.000 eurokoa izan zen diru-laguntza, eta 2016tik 2018ra 130.000 eurokoa izan zen; aurten 20.000 eurotan areagotu da.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 80.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ONARTU DU ZINEUSKADIRENTZAT, EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKOAREN NAZIOARTEKOTZEA LAGUNTZEKO ETA EMAKUMEEK EGINDAKO ZINEMA SUSTATZEKO

- **Laguntza horri esker, Basque Audiovisual markaren bidez, euskal ikus-entzunezkeri babesa emango zaio nazioartean eta, era berean, Noka Mentoring proiektua bultzatuko da**

Zineuskadi Elkarteak 80.000 euroko diru-laguntza izango du aurten, batetik, euskal ikus-entzunezkoen sektoreari nazioartean laguntzeko Basque Audiovisual markaren bidez, eta, bestetik, Noka Mentoring proiektua sustatzeko. Lehenengo ekimenaren bidez, Zineuskadik Berlinale, MAFIZ (Malaga), Marché du Film (Cannes), Mifa (Annecy) eta Zinemaldira eramango du euskal ikus-entzunezkoa. Noka Mentoring ekimena, berriz, mentoring eta akonpainamendu pertsonalizatuko programa bat da, non film luzeko hiru proiektu hautatzen diren. Proiektu horiek, urtebetez, dozena bat adituren laguntza eta aholkularitza jasoko dute.

Zineuskadiri zuzendutako diru-laguntza honen bitartez, erakundearen urteko programaren barruan sartuta ez dauden bi proiektu horiek finantzatu nahi dira. Izan ere, gainontzeko ekimenak, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak Zineuskadiri emandako kontu-sailaren bidez finantzatzen dira (aurten, 1.000.000 euro).

Basque Audiovisual markak euskal ikus-entzunezkoen sektore osoa ordezkatzen du, eta lan bizi baten eta sektore horretako euskal enpresa gehien erabakiaren emaitza da. Zineuskadiren eta Etxepare Euskal Institutuaren lanaren bitartez, nazioarteko merkatu eta jaialdi nagusietara eramaten da euskal ikus-entzunezkoa, marka hori baliatuta. Bertan, Zineuskadik laguntza eta aholkularitza eskaintzen dio sektoreari, gaur onartutako diru-laguntzari esker.

Noka Mentoring programak, berriz, elkarguneak sortu nahi ditu ikus-entzunezkoaren sektoreko emakume ekintzaileak harremanetan jartzeko ibilbide ezaguneko zinemagileekin. Maialen Belokik (Donostiako Zinemaldiko zuzendariordea), Pau Guillenek (Zinegoak jaialdiko zuzendaria) eta Constanza Arenak (CinemaChileko zuzendari exekutiboa) osatutako epaimahaiak Estibaliz Urresola, Itziar Leemans eta Tamara Lucarini zinemagileak aukeratu ditu aurtengo lehen ediziorako. Hiru artista hauen lehen film luzeak 17 ekoizpenen artean hautatu ziren.

Bi proiektu horiek bat egiten dute Zineuskadiren ohiko zereginekin; besteak beste:

- Zinema Euskaraz programaren kudeaketa
- Europa Creativa Desk Media Euskadi bulegoaren kudeaketa

- Glocal Cinema ekimenaren koordinazioa
- Zinema-aretoetarako laguntzak kudeatzea
- Publizitate eta sustapen zinematografikorako laguntzak kudeatzea

Euskal ikus-entzunezkoen sektorea bultzatzeko asmoz sortutako elkartea da Zineuskadi. Bazkide hauek ditu: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, EITB, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia, Euskadiko Filmategia eta Euskadiko ekoizleen bi elkarteak: (Ibaia eta EPE-APV).

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 45.000 EUROKO DIRU-LAGUNTZA BATEN BIDEZ LAGUNDUKO DU EUSKARABENTURA ESPEDIZIOA

- **Azken edizioan, uztailen, 16 eta 17 urteko 120 gaztek parte hartu zuten eta 780 kilometro baino gehiago egin zituzten**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 45.000 euroko diru-laguntza onartu du, bere gaurko bileran, Euskarabenturarentzat. Euskararen lurralde osoa zeharkatzen duen espedizio baten bidez gazteen artean euskararen erabilera bultzatzeko sortu zen Euskarabentura, eta joan den udan bigarren edizioa egin zuen. Horrela, uztailen zehar, 16 eta 17 urteko 120 gaztek, Euskadikoak, Nafarroakoak eta Iparraldekoak, baita diasporakoak ere, 780 kilometro baino gehiago egin zituzten 31 etapatan.

Egitasmoak hiru helburu nagusi ditu: gazteen artean euskararen erabilera sustatzea eta normalizatzea; gazte euskaldunen sare berri bat sortzea eta aberastea; eta euskal ondare natural, historiko eta kulturalaren transmisioa bermatzea. Orotara 50 jarduera baino gehiago programatu ohi dira 31 etapetarako. Ekintza anitzetan era guztietako gaiak jorratzen dira: euskara, soziolinguistika, feminismoa, genero eta sexu identitate-aniztasuna, etorkinen egoera, gizarte-ekonomia, kultura, ondare historikoa, larrialdi ekologikoa, basogintza... Aldiro-aldiri hainbat arlotako profesionalak espediziora batzen dira beren ezagutza eta esperientzia partekatzeko: dantzariak, bertsolariak, kazetariak, idazleak, etab.

Ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoa du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren zein Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bidez. Horrez gain, Akitania Berria/Euskadi/Navarra Euroeskualdearen laguntza jasotzen du, bai eta foru aldundiena Nafarroako Gobernuarena eta Iparraldeko Euskararen Erakunde Publikoarena ere.

Galtzaundi elkarteak

Bestalde, Eusko Jaurlaritzak 8.000 euroko diru-laguntza onartu du Galtzaundi euskara elkartearentzat, 'Ahalduntze lurak ereiten. Euskaldunak ahalduntzeko proposamenaren gakoak, Tolosaldean' izeneko programa garatzeko. Proiektuaren helburua da herriz herriko euskaltzale talde eraginkorra trebatzea eta Tolosaldeko hizkuntza errealitateaz jabetaraztea eta berau ulertzeko gakoiez ohartaraztea da.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL CONSEJO VASCO DE FUNCIÓN PÚBLICA DA LUZ VERDE AL “ANTEPROYECTO DE LEY DE CUERPOS Y ESCALAS” Y PIDE AL GOBIERNO QUE INCLUYA, DURANTE SU TRAMITACIÓN, LOS PROCESOS ESPECIALES DE CONSOLIDACIÓN DE EMPLEO PÚBLICO

- Es la nueva norma que modernizará y actualizará las funciones y titulaciones requeridas para acceder a los puestos de trabajo del personal funcionario de la Administración General de Euskadi y los organismos autónomos del Gobierno
- A petición del Consejo, el Gobierno incluirá, durante su tramitación, los procesos especiales de consolidación de empleo público para que estén en vigor cuando se convoquen las numerosas OPE anunciadas por las administraciones públicas vascas a partir del año que viene
- Con el visto bueno previsible del Consejo, la nueva ley entra en su recta final de tramitación para su aprobación y envío al Parlamento antes de finalizar el año

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, ha informado al Consejo de Gobierno de que el Consejo Vasco de Función Pública dará, hoy, luz verde al “*Anteproyecto de Ley de Cuerpos y Escalas*”. Así, la futura ley que ordenará las funciones, titulaciones y campos de estudio requeridos para cada puesto de trabajo de la Administración General de Euskadi y los organismos autónomos del Gobierno Vasco, entrará en la recta final de su tramitación para su aprobación y envío al Parlamento Vasco antes de fin de año.

El Consejo Vasco de Función Pública es el foro de encuentro los tres niveles institucionales de Euskadi con los sindicatos mayoritarios de la función pública vasca: ELA, LAB, UGT y CCOO. Su convocatoria es obligatoria cuando se aprueban normas que afectan al funcionariado. Es el caso de la futura “*Ley de Cuerpos y Escalas*” que tendrá efectos sobre las 6.000 personas funcionarias que, aproximadamente, trabajan en la Administración General de Euskadi y los organismos autónomos del Gobierno Vasco.

El “*Anteproyecto de Ley de Cuerpos y Escalas*” es una norma muy breve, de 2 capítulos, 19 artículos, 2 disposiciones adicionales, 1 transitoria y 1 derogatoria. Sustituirá a la actual ley que data de 2004 y su objetivo es, precisamente, modernizar los actuales grupos y subgrupos para adaptarlos a las nuevas titulaciones y perfiles profesionales de los puestos de trabajo.

PROCESOS ESPECIALES DE CONSOLIDACIÓN DEL EMPLEO PÚBLICO

La futura “*Ley de Cuerpos y Escalas*” llega a esta fase final de tramitación tras una intensa negociación de seis meses con las 4 centrales sindicales mayoritarias en la función pública. Fruto de esta negociación, se incorporarán a

